



Arartekoaren 2023NI-1856-22 Ebazpena, 2023ko martxoaren 24koa. Honen bidez, sexu-eraso baten salaketa bati dagokionez Ertzaintzak egindako jarduketa bati buruzko 1856/2022/QC kexa-espedientean izandako jarduna amaitu da.

Aurrekariak

1. (...) delakoak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen 2022ko abuztuaren 17a eta 20a bitartean Zabalburuko eta Deustuko ertzain-etxeetan jasotako tratua dela eta, lagun batekin, kexagileak berak jasan zuen sexu-eraso bat salatzerara joan zenean.

Ekinbiden aurkeztutako kexaren arabera, besteak beste, abuztuaren 17an Zabalburuko ertzain-etxean ez zegoen arreta eman ahal zion emakumerik eta pribatutasuna eskatu behar izan zuen salatu nahi zituen egitateak tratatzeko; izan ere, agente guztiek ertzain-etxeko itxarrote-gelan eman zioten arreta, eta herritar gehiago zeuden bertan. Bestalde, azaldu du agenteek ez zizkiotela salaketa egiteko orduan izan zituen zalantzak argitu. Horrez gain, adierazi du froga eman ziotenean, honako hau oihukatu ziola bulegoetako korridoretik irten zen agenteak: «¿tú eres la abusada?» (zu zara abusuak jasan dituenena?). Hau adierazi du agente horri buruz: *“El agente con una actitud muy hostil y violenta, me pregunta donde había nacido, asegurándome que él había nacido en la ciudad de Bilbao. Yo temiendo la situación y nerviosa, le respondía que yo solo estaba ahí para entregar la colcha e irme. Me respondía intimidándome con la mirada y el lenguaje corporal y verbal de que los procedimientos tenían que tomar su tiempo. Su actitud era lamentable, pues a más me ponía yo nerviosa, más relajaba él la actividad de su trabajo y revisaba mi DNI por ambas caras”*. Era berean adierazi du ez dagoela ados Deustuko ertzain-etxean agente batek emandako tratuari, eta gertatutakoa deskribatu du.

Beste alde batetik, haxe jaso da erakunde honetan aurkeztutako kexan: *“en mis interacciones con los agentes de la Ertzaintza no paro de seguir sufriendo violencia tanto de discriminación y odio por mi origen como de revictimización de modo cruel e intencionadamente en el abuso que he sufrido”*.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo zuen planteatutako gaiez informa zezaten.

Segurtasun Sailak erakunde honi emandako informazioa eta segurtasun publikoko sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoko arduradunaren idazkiaren bitartez 2022ko urriaren 28an interesdunak bidalitakoa ia berdina dira, baina bertan ez zitzaion erakunde honi azaldu 2022ko abuztuaren 20an Zabalburuko ertzain-etxean, froga uztera joan zenean, gertatutakoa.



Alabaina, honakoa gaineratu du:

“La Jefatura de la Ertzain-etxea de Bilbao, responsable policial en el ámbito en el que se producen las actuaciones, realiza una análisis, acorde a la perspectiva planteada en la Recomendación General 7/2011, de 28 de octubre (apartado VI) y en la Resolución 2014R25-14 del Ararteko, de 10 de diciembre de 2014, para evitar y detectar la elaboración de perfiles raciales, concluyendo que en el presente caso no se refleja ninguna discriminación por razón de nacimiento, nacionalidad, origen racial o étnico, sexo, religión o creencias, edad, discapacidad, orientación o identidad sexual, opinión o cualquier otra condición personal o social.

Que las expresiones reflejadas por la reclamante en cuanto a su condición de víctima, de raza árabe y con experiencias de violencia por parte de la policía, no guardan relación alguna con el trato dispensado por los agentes de la Ertzaintza que la han atendido, los cuales tratan con esmero y dedicación a toda la ciudadanía, sin hacer observación discriminatoria alguna por género, procedencia o cualquier otra condición personal, rechazando que en el tratamiento dispensado a la promotora de la queja se pueda atisbar alguna de las cuestiones planteadas por Dña. (...) como discriminación.

Con fecha 14/09/2022, la Jefa de Centro de Investigación de la Ertzain-etxea de Bilbao contactó con la reclamante, quien reiteró su sentimiento de haberse sentido revictimizada, discriminada y violentada, no aportando dato concreto que evidenciara esta conducta en los agentes actuantes (gesto, palabra o expresión), no pudiéndose así objetivar el sentimiento transmitido por la promotora de la queja.

En la conversación mantenida, Dña. (...) expresa que las preguntas que se han dirigido hacia su persona durante todo el proceso le hacen sentir violentada, discriminada. Por su parte la Jefa de Centro le transmite su pesar porque se haya podido sentir así, que en modo alguno los agentes intervinientes han mostrado una conducta discriminatoria hacia su persona, siendo las preguntas formuladas las habitualmente realizadas para el tipo de hechos tratado. La reclamante agradece la llamada, pero insiste en su sentir”.

Era berean, sexu-erasoen salaketak egiteko orduan Ertzaintzak bete beharreko jarduketa-jarraibideei dagokienez, 37 Zerbitzu Agindua eta sexu-erasoetarako Bizkaiko jarduketa-protokoloa (2016-03-09tik dago indarrean) aipatu dira, baina ez dira dokumentuak jasotako erantzunean erantsi.



Gogoetak

1. Arartekoak modu positiboan baloratu du polizia-arduradunak agenteen jarduketaren analisia egin izana arraza-profilak egitea saihesteko eta hautemateko Arartekoaren 2014ko abenduaren 10eko 2014R-25-14 Ebazpenean eta urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorreko VI. apartatuan planteatutako ikuspegitik, baina, hala ere, tamalez, ez ditu helarazi esku hartu duten agenteek kexagilearen aurkako diskriminazio-jarrerarik erakutsi ez dutela ondorioztatzeko oinarri gisa hartu dituen txostenak, adierazpenak edo dokumentuak..

Beste batzuetan bezala, Arartekoari bere bulegoetara joateko gonbita egitera mugatu da saila, bertan beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ditzan, eta ez du ikerketaren oinarri den dokumentazioa bidaltzea galarazten dizkioten arrazoiei buruzko azalpenik eman. Erantzun hori oztopo bat da erakunde honek legez esleituta dituen zereginak gauzatzeko ohiko jarduera garatzeko; izan ere, arrazoirik gabe kentzen dizkio aztertzen ari den eta emandako informazioa egiaztatzeko beharrezkoa duen administrazio-jarduketaren berri izateko beharrezkoak diren funtsezko elementuak. Horrez gain, asko murrizten dituzte erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak —ordenamendu juridikoak herritarrek beren interesak defenda ditzaten ezarritako tresnetako bat da Arartekoa—.

Beste alde batetik, modu positiboan baloratu beharra dago, erakunde honen iritziz, 2022-09-14an Bilboko ertzain-etxeko Ikerketa Zentroko burua kexagilearekin harremanetan jarri izana, eta, txostenaren arabera, hauxe azaldu zion: *"...reiteró su sentimiento de haberse sentido revictimizada, discriminada y violentada, no aportando dato concreto que evidenciara esta conducta en los agentes actuantes (gesto, palabra o expresión), no pudiéndose así objetivar el sentimiento transmitido por la promotora de la queja. En la conversación mantenida, Dña. (...) expresa que las preguntas que se han dirigido hacia su persona durante todo el proceso le hacen sentir violentada, discriminada."*

Hori horrela, ikerketa egin ostean Segurtasun Sailak Arartekoari eman dion informazioa ez dator bat kexagileak kexan emandakoarekin, agenteek eman zioten tratuari dagokionez.

Beste batzuetan adierazi den bezala, kexa aurkeztu duen pertsonak eta kexa sorrarazi duen jarduketako protagonistak egitate batzuei buruzko bi bertsio desberdin izateak eragiten du bertsio horiek, berez, kontaktu dituzten moduan gertakarien froga izatea (Poliziaren jarduera eta praktiketako berme-sistemari buruzko Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorren II.1.1. apartatua).



Egitate batzuei buruzko bertsio desberdinak daudenean eta Arartekoak ez duenean kexagileak kontatutako egitateei nagusitasuna emateko eta informazio ofiziala ezeztatzeak aukera ematen dion beste froga-elementurik, kasu honetan gertatu den bezala, erakunde honek ez du Segurtasun Sailean jarduketa gehiago egiteko funtsik, kexan jaso den bertsioa abiapuntu hartuta.

Arartekoa jakitun da tratu desegokia (kexan salatzen zena bezalakoa) frogatzeak dituen zailtasunez; are gehiago, tartean egondako pertsonen emandako bertsioak bat ez datozenean eta horiek indartzeko beste frogarik ez dagoenean. Dena den, nabarmendu nahi du Segurtasun Sailari dagokiola kexagileak kexaren arrazoia den ertzainen jokaeraren zuzentasunari buruz adierazi dituen zalantzak argitzea eta azaltzea, zertan oinarritu zen jokaera hori zuzena izan zela esateko, eztabaidagarriak diren alderdiak aintzat hartuta. Azaldu dugunez, azalpenik ez da eman.

Horri dagokionez, Arartekoak uste du komeni dela gogoraraztea ikerketaren edukiak egokia eta nahikoa izan behar duela egitateak argitu eta ikerketaren arrazoizko aukera guztiak agortu ahal izateko, bai eta Poliziaren jardura eta praktiketako berme-sistemari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Arartekoaren Gomendio Orokorrean (II.1.1. apartatua) jasotako jarraibideak bete behar direla ere.

Era berean, egoki jotzen da adieraztea, beste batzuetan egin den bezala, eragindako agenteek bertsio kontrajarria izate soilak ez duela balio beste ikerketajardura batzuk egitea baztertzeko edo poliziaren jardunaren egokitasunari buruzko iritzia horretan bakarrik oinarritzeko.

Ikerketaren ikuspegi horrek eskatuko luke, erakunde honen iritiz, gutxieneko alderaketa egin izana agente horien jarduteko moduaren eta biktima lasai sentiarazi zuten, gertatutakoak kontatu ahal izan zien eta zalantza guztiak argitu zizkieten agenteen jarduteko moduaren artean. Era berean, egokia izango litzateke ertzain-etxera lagundu zuen lagunaren kontakizuna izatea. Hala eta guztiz ere, emandako informazioaren arabera, ez dirudi alderaketa hori egin denik.

3. Aurrekoa esan ondoren, Arartekoak uste du beharrezkoa dela nabarmentzea agente batzuek dagozkien zereginak egiterakoan erakutsitako jarreragatik kexagileak sentitu duela berriz biktimizatu dutela, diskriminatu dutela eta lotsarazi dutela. Dena den, denek ez zioten hori sentiarazi.

Hori horrela, Ekinbiden aurkeztutako kexan kontatu duenaren arabera, ospitalera lagundu zioten agenteen babesa eta laguntza sentitu zuen. Baieztatu du agente horiek, zegokien lana ondo egiteaz gain, babesa, lasaitasuna eta laguntza eman



zizkiotela oso gertuko jarrerarekin. Horrez gain, ez du kexarik aurkeztu Zabalburuko ertzain-etxeko xxx izeneko agentearen aurka, zeina salaketa jartzeko jarri zen berarekin harremanetan. Agente horrekin jarri zuen salaketa, eta interesdunak ez du zalantzan jartzen, ez egindako lana, ez beragandik jaso zuen arreta.

Agente batzuekin lasai eta babestua sentitzeak eta beste batzuekin ez pentsarazi egiten digu agente batzuek interesdunarekin izan zuten tratuan edo ekintzetan, gutxienez haren iritziz, jarrera desberdinak izan zituztela, eta, zehazki, batzuetan diskriminazio-jarrerak hauteman izana, zeinak, gainera, lotsatuta eta berriz biktimizatuta sentitzea ekarri zioten.

Batzuetan, praxi txar batek interesdunak deskribatu dituenaren moduko egoerak eragin ditzake, eta, horrela, sufrimendu gehiago gehitzen zaie dagoeneko traumatikoak diren esperientziei. Praxi txar hori gerta daiteke, bai egiteagatik, bai ez egiteagatik, genero-, jatorri- edo erlijio-ikuspeirik ez izateagatik edo horren berri ez izateagatik aitorten bat hartzerakoan edo salaketa bat jasotzerakoan, sarritan, prestakuntza- edo espezializazio-maila egokien faltagatik.

Hori dela eta, erakunde honek uste du egokia dela langileentzako sentsibilizazio-neurriak ugaritzea, zereginak ondo egiten dituztela eta duintasunezko tratua eskubidea errespetatzen dela kudeatzeko. Horri esker, ekidin ahal izaten da aitortena hartzerakoan, salaketa jasotzerakoan edo frogak biltzen direnean salaketa jarri duen biktimak arraza, etnia, erlijio, sinesmen, sexu-orientazio, adin, ideologia, desgaitasun edo antzeko beste arrazoï bategatik diskriminatu dutela, tratu desegokia eman diotela edo berriz biktimizatu dela sentitzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 25.1 c) artikulua).

Erakunde honek uste du, bestalde, agenteek herritarrekiko harremanetan tratu egoki eta arretatsua izan behar dutela, enpatiarekin jokatzuz, (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategineko 25.1 a) artikulua) eta, ondorioz, ulertzea, aktiboki entzutea, errurik ez botatzea edo ez epaitzea, errepikatzen diren eginbideak saihestea eta arreta berezia jartzea jokabideari, eta, horrela, hartzaileek iraingarritzat, errespetuaren aurkakotzat, gehiegizkotzat edo zuzenean edo zeharka diskriminatzailetzat jo ditzaketen iruzkinak saihestea.

Era berean, arintasunez jardun beharra eskatzen du, eskubideak erabiltzea zailtzen edo luzatzen duten jarduketak ekiditeko, interesdunak froga Zabalburuko ertzain-etxera eraman zuzenean deskribatutako egoera bezalakoa; izan ere, berriz biktimizatzea edo bigarren mailako biktimizatzea gertatzea ekarri dezake.



Amaitzeko, sailaren erantzunean jasotako jarraibideekin bat etorritik, Arartekoak azpimarratu nahi du, edonola ere, segurtasun-giroa sortu behar dela biktimak aitortzea egiten duen unean, eta leku eroso eta pribatu batean egin behar dela, intimitatea bermatzeko, etenik gabe eta biktimak hautatzen duen pertsonarekin egoteko aukera bermatuta.

Ondorioa

1. Aurreko balorazioa aintzat hartuz, Arartekoak kexaren inguruan izapidetutako 1856/2022/QC espedientean izandako jarduketa amaitutzat eman behar du; izan ere, ez du inolako frogabiderik gaian gehiago sakontzeko.
2. Hala eta guztiz ere, Arartekoak egoki jotzen du nabarmentzea biktimekin aritzen diren agenteentzako neurri espezifiko batzuk ezarri behar direla, sentsibilitatez eta enpatiaz jardun dezaten, hartzaileek iraingarritzat, errespetuaren aurkakotzat, gehiegizkotzat edo diskriminatzailetzat jo ditzakeen iruzkinak ekiditeko, eta, aldi berean, "salaketa/aitortzea hartzean", 37 Zerbitzu Aginduan eta horretarako ezarritako protokoloetan jasotako baldintzak errespetatzea.

